

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren 364/2018 Foru Agindua, abenduaren 21ekoa, "Errepide plan integralaren eguneraketa, aldaketa edo berrikuspena (2017-2027)" agiriaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa egiten duena

Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren ohiko prozeduraren eraginpean izapidetu behar da Arabako 2016-2027 Errepide Plan Integrala (AEPI) eguneratu, aldatu edo berrikusteko agiria, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak sustatzen duena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, arautzen du aipatutako prozedura; urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, berriz, plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen du.

Prozedura horren eremuan, 2015eko uztailaren 30ean, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak Ingurumen Azterketa Estrategikoaren irismen agiria eman zuen, arestian aipatu dugun 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, 19. artikuluan xedatzen duenari jarraiki. Agiria eman baino lehen, kontsulta egin zitzaion ukitutako herri administrazioei, natura ikertzea eta zaintzea helburu duten elkarteei eta gainerako interesdunei, eta jasotako erantzunak Ingurumen Azterketa Estrategikoaren irismen agirian jaso eta txertatu ziren. Geroago, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritzari igorri zitzaion agiria.

2018ko azaroaren 28an, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritzak Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzari Ingurumen Adierazpen Estrategikoa emateko eskatu dio. Eskaera horrekin batera, agiri hauek jaso genituen:

– Arabako 2016-2027 Errepide Plan Integrala (AEPI) eguneratu, aldatu edo berrikusteko agiriaren azken proposamena (jendurreko informazioaren eta kontsulten emaitzarri egindako alegazioen ebazpenak eragindako zuzenketak barne).

- Agiri horren Ingurumen Azterketa Estrategikoa (IAE).
- Jendurreko informazioaren eta kontsulten emaitzak.

Ingurumen adierazpen estrategiko honek oinarri hartzen du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak egindako txosten teknikoa (2018ko abenduaren 14koa), betiere 21/2013 Legeak 25. artikuluan ezarritakoari lotuta.

Ingurumen Adierazpen Estrategiko honetan jasotzen diren zehaztapenak, 21/2013 Legearen 26. artikuluan adierazten denez, "Arabako Errepide Plan Integralaren (AEPI) eguneraketa, aldaketa edo berrikuspena (2017-2027)" agirian sartu beharko dira.

1. Planaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa

1.1. "Arabako Errepide Plan Integralaren (AEPI) eguneraketa, aldaketa edo berrikuspena"ren ezaugarri orokorrak. Ingurumena babesteko helburuak.

Indarrean dagoen Arabako 2004-2015 Errepide Plan Integrala, Arabako Batzar Nagusiek onartu zuten behin betiko 2008ko ekainaren 16ko osoko bilkuran, ekainaren 16ko 11/2008 Foru Arauaren bitartez.

Ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzkoak, xedatzen duenez, AEPIa Arabako errepide guztietan sartu behar diren xedapenak, helburuak, lehentasunak eta hobekuntzak ezartzen dituen plangintza sektorialeko tresna da. Indarreko

planean, beraz, 2004tik 2015era bitarteko jarduera programa bat ezarri da, eta Arabako errepide sare osoan egin beharreko jardueren hautaketa eta programazio bat ezarri da, bai errepide berriak eraikitzeari, bai daudenak egokitzeari, biztanleguneetako saihasbideak eta maila txikiagoko beste jarduera batzuk egiteari dagokienez.

AEPIa zenbait urtez indarrean egon ondoren, organo sustatzaileak hura eguneratu, aldatu edo berrikusi, eta haren epemuga 2027 arte luzatzea proposatu du. Horretarako, eguneraketa, aldaketa edo berrikuspenaren aurreproiektua egin da eta, arestian esanenez, haren ingurumen analisia egin da, Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren ohiko prozeduraren bitartez, eta prozedura hori azken burura eramateko, Ingurumen Adierazpen Estrategiko hau ematen da.

Plana eguneratu, aldatu edo berrikusteko arrazoen artean, sustatzaileak azaldu du 2008an, plana onartu zen urtean, egun dirauen krisialdi ekonomiko bat hasi zela eta, haren ondorioz, hura garatu eta gauzatzeko baliabide ekonomikoak murriztu direla pixkanaka, jarduera gehienak atzeratuz eta geroratuz. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritzak dioenez, hori dela eta, planaren helburuek indarrean diraute guztiz, baita AEPIan sartutako esku hartzeko beharrezanek edo aurreikuspenek ere eta, beraz, ez da plan berririk egin behar, hura eguneratu edo aldatu baizik.

Eguneratu, aldatu edo berrikustearen helburua agiri eguneratu bat egitea eta, bertan, lurralde historiko honetako errepide sarean, 2016-2027 aldian, egin beharreko jarduera guztiak jasotzea da, haietako bakoitzarentzat hau zehaztuz:

- Jarduera txertatzen den programa eta jardueraren ezaugarriak (helburuak eta ezaugarri teknikoak).
- Behar den inbertsioko aurrekontua.
- Zehaztapen maila: planaren berrikuspina indarrean jartzeko unean obraren proiektua dagoen egoera, edo jarduerarako behar den zehaztapen maila adieraztea.
- Ingurumen ondorioak.
- Eragina hirigintza plangintzan.
- Jarduteko lehentasuna.

AEPIa eguneratu, aldatu edo berrikustea proposatzeko plangintza agiriaren eremua Arabako Lurralde Historikoaren titulartasuneko den errepide sare osoa da, 1.396,1 kilometrok osatzen dutena, eta 250 jarduera baino gehiago jasotzen dira.

Jarduera horietako gehienak indarreko Errepide Plan Integralean (2004-2015) zeuden jasota. Plan horrek Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio Bateratuko prozedura bete zuen, baldintzapeko aldeko adierazpenarekin amaitu zena, Aldundiaren ingurumen organoak 2008ko otsailaren 15ean Ingurumen inpaktuari buruzko behin betiko txostena emanda. Behin betiko txosten edukia (egungo Ingurumen Adierazpen Estrategikoaren parekoa da bera), bere neurriekin batera, indarreko planean txertatu zen.

AEPIaren berrikuspenean egiten diren proposamenak, alde batetik, egokitzapenak, trazaduraren hobekuntzak eta plataforma handitzea dira, eskualdeko sarean batez ere. Bestalde, tokiko eta auzoko sarean trazadura hobetzeko eta plataforma handitzeko programak proposatzen dira, baita zabaltzeko eta sendotzeko programak ere. Gainera, jarduera berriak erantsi dira "istripuak pilatzen diren zati" etan eta zeharkaleetan saihasbideak egiteko jarduera berri bi.

Ingurumena babesteko helburuak.

Garrantzitsua da azpimarratzea AEPIa 2016-2027 aldirako berrikusteko helburuen artean hau sartu dela (Memoria. 8.1 puntua. Planaren helburuak): Errepideen Foru Sareko jarduerak eta Natura Intereseko Eremuak eta katalogatutako paisaien balioak zaintzea bateragarri egitea, Arabako lurraldeko eta haren inguruneko biodibertsitateari eusteko behar diren konektibitate

ekologikoko prozesuei nabarmen eragiten ez zaiela bermatuz. Planaren beraren helburua da eta, zalantzarik gabe, kontuan hartu beharko da inpaktua ebaluatzeko prozeduren aukeren analisiak, proiektu bakoitza definitzeko prozesuan egin beharrekoak, egitean.

Halaber, planak berak, bere helburuen artean, azpimarratzen du Errepide Plan Integrala berri-kustean kontuan hartu behar dela derrigorrez aipatu behar dela beste garraio mota batzuekiko intermodalitatea, jarduera proposamen berriak definitzean agertu behar dena.

1.2. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa: Arabako Lurralde Historikoaren ingurumen balioa.

AEPlan jasotako jarduera guztiak Arabako Lurralde Historikoaren eremuan garatzen dira. Haren ingurumen baliabideen analisi zehatza prozedura honen esparruan sustatzaileak idatzitako Ingurumen Azterketa Estrategikoan azaldu da eta, beraz, puntu honek datu batzuk baino ez ditu azpimarratzen, errepide planean jasotako jarduerak garatu beharko diren lurralde horren ekologia eta paisaia balio eta berezitasun nagusien eta, penintsula eta are Europa mailan, konektibitate ekologikoko eskualdean zeharreko eremu gisa duen garrantziaren ideia bat emateko.

Euskal Autonomia Erkidegoko biodibertsitatearen erreserba nagusia da Araba, naturgune babestuen edo izendapen hori jasotzeko izapideetan daudenen kopurutik eta azaleratik ondorioztatzen denez. Izan ere, lurraldean lau parke natural daude izendatuta, lau hezegune daude sartuta Nazioarteko garrantziko "Ramsar" hezeguneen zerrendan, biotopo babestu bat dago eta beste bat izendatzeko proposatuta eta haren azaleraren ehuneko 26,3 (80.000 hektarea inguru) "Natura 2000" Europako Sare Ekologikoan sartutako esparruei atxikita dago (kontserbazio bereziko hogeita bost eremu –KBE- eta hegaztien babes bereziko lau eremu –BBE-).

Halaber, EAEn "galzorian" katalogatuta dauden espezieen intereseko habitat guztiak ia Araban daude eta, beraz, Arabako Lurralde Historiko osoan 9 dira "galzorian" eta/edo "mehatxupear" katalogatutako espezieen kudeaketa planak, Arabako Foru Aldundiak onartu dituenak. Halaber, Arabaren azaleraren ehuneko 57 dago paisaia bikain edo berezi gisa kalifikatuta, Arabako Lurralde Historikoko paisaia berezi eta bikainen katalogoaren arabera (Diputatuen Kontseiluaren 2005eko irailaren 27ko 829 zenbakiko Erabakiaren bidez onartua) eta lurralde osoaren erdia baino zertxobait gehiago dago Onura Publikoko Mendi gisa katalogatuta, eta mendi horiek kontserbazio egoera oneko baso autoktonoek betetzen dituzte gehien bat.

Errepide plan baten ingurumen eragina aztertzen denean, funtsezkoa da konektibitate ekologikoan eragindako ondorioak astiro aztertzea; izan ere, bide azpiegiturak eraiki eta/edo birmoldatzeari lotutako inpaktu nagusietako bat habitaten zatikatzea izaten da, kalitatezko naturguneak zuzenean okupatzeagatik eta basa fauna eta floraren fluxu biologiko naturalentzat hesi efektua sortzeagatik sortua. Ildo horretan, Arabako Lurralde Historikoarentzat proposatu den Sare Ekologiko Funtzionalaren garrantzia azpimarratu behar da. Sare horrek konektore ekologikoen sare bat gehitzen dio egungo naturgune babestuen sistemari, eremu horien jarraikortasun ekologikoa eta epe ertain eta luzean biodibertsitate biologikoari eustea ziurtatuz. Penintsula eta Europa mailan, nabarmendu behar da Arabak mendigune handi bi, Pirinioak eta Kantauriar mendikatea, lotzeko duen funtsezko eginkizuna. Sistema natural horietan daude peninsularen iparraldeko biodibertsitate erreserba leku nagusiak eta, beraz, gure lurraldearen zati handi bat Kantauriko mendikatea – Pirinioak – Frantziako erdialdeko mendigunea – mendebaldeko Alpeak konektibitate ekologikoko ekimenaren eremuan dago bilduta, zeina Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Erakundeak (IUCN) sustatzen baitu. Arabako Foru Aldundiak formalki atxiki zitzaion haren konpromisoan adierazpenari (Diputatuen Kontseiluaren 2006ko urriaren 24ko 920 zenbakiko Erabakia).

Ingurumen Azterketa Estrategikoak, 7.2.2. puntuan, 2016-2027 AEPlan lurralde historikoko naturgune berezietan eta ingurumen balio berezikoetan jasotzen diren jarduerak gainjartzen ditu, proposatutako sareak natura ingurunean eragin esanguratsua izan ditzakeen zati nagusiak hautemanetz. Funtsezko printzipioa da eremu horietan eragin esanguratsuko jarduerak saihestu edo minimizatzeke irizpidea, eta eremu horietan proiektuak egiteko ingurumen baldintzak ezartzen dira.

2. Aukeren analisia

2016-2027 Plan berrirako proposatutako aukerak Ingurumen Agiri Estrategikoan azaltzen dira. Aintzat hartutako hiru aukerak laburbildu dira hemen, laburki:

1. 0 aukera: "Ez jarduteko" aukera, edo Arabako errepide sarea egungo egoeran uztekoa, Arabako errepide sarean egiteke dauden jardueren plangintza bertan behera utziz.

Sustatzaileak ezetsi du, uste baitu ez litzatekeela egungo eta etorkizuneko beharrianetara egokituko eta sarearen maila guztietako integrazio akatsak betiketuko liratekeela: interferentziak hiri bilbearekin, interferentziak ingurumen balioekin, irisgarritasuneko gabeziak, arriskua, energia eta denbora aurreztu ezina, etab.

2. 1 aukera: "AEPI (2004-2015)" aukera, edo bertan aurreikusi eta egiteke dauden jardueren programari eustea, egin eta sarean sartu direnak ezabatuz. 2 aukeraren oso antzekoa da, baina ez litzateke AEPIa egokituko azken urteetan araudian gertatu diren aldaketetara.

3. 2 aukera: "2016-2027 AEPIaren eguneraketa, aldaketa edo berrikuspena" aukera; planaren jarduera programa berrikustean datza, sarearen gainean jarduteko diagnostikoaren eta beharrianen erreferentziako egoera eguneratuz. Errepide sarearen gaineko jardueren programazioa doitzea bilatzen da, erreferentziako arau eta plangintza esparruarekin koordinatuta, eta jarduerak sarearen egungo beharrianetara egokituz. Indarreko planean aurreikusitako jarduera bereberei eusten zaie, gehien bat, dagoen sarea hobetzeko proiektu batzuk sartuz.

Proposatutako jardueren ingurumen bideragarritasunari dagokionez, estrategia posible bi definitu dira planaren mailan:

– A mota izeneko estrategiak zatiaren beharrian funtzionalak lehenesten ditu ingurumenari eragiteko arriskuen aurrean. Eragin dakiekeen ingurumen balioak maila urrikoak edo ez esanguratsuak diren kasuetan aplikatzen da.

– B mota izeneko estrategiak ingurumenaren gaineko eraginak eta arriskuak prebenitu beharra lehenesten du, proiekturako irtenbide apalagoak eta irismen txikiagokoak hautatuz, gutxieneko funtzionaltasun maila bermatuz.

Ingurumen Azterketa Estrategikoak (IAE) aukera guztiak aztertu eta inpaktuak baloratu ditu. Azkenik, planaren proposamen bakoitzarentzat aukera bat hautatu da, egindako hautaketa arrazoituz. Gainera, jarduera nagusi bakoitzaren ebaluazioa sartu da, lurraldeari dagokionez kuadrillen arabera antolatuta. Azterketa horretan ebaluazioan hautemandako inpaktu eta eraginen, inpaktua murrizteko neurrien eta gainbegiratu beharreko eremuen irudikapen kartografiko egoki bat egin da.

Garrantzitsua da azpimarratzea plan honetan azaldutako jarduera gehienak indarreko 2004-2015 Planean sartuta daudela, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio Bateratuko prozedura bete zuela, eta Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak 2008ko otsailaren 15ean Ingurumen inpaktuari buruzko behin betiko txostena eman zuela.

Azkenik, IAEn Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa, arrunta edo banakatua, nahiz erraztua, amaituta duten proiektu guztiak zehazten dira.

3. Ebaluazio prozesuaren analisia

3.1. Ingurumen Azterketa Estrategikoaren balorazioa: kalitatea eta ondorioak.

Ingurumen Azterketa Estrategikoaren (IAE) edukiak aztertuta, orokorrean eta egituraren arloan, agiriak kalitate egokia dauka txosten honen xede den planaren ingurumen ebaluazio estrategikoa gauzatzeko. Kaltetutako eremuaren ingurumen analisi, diagnostiko eta balorazio berbera egin da, baita eraginen identifikazio eta balorazio, planaren ondorioak berrikusteko programa eta ingurumen integraziorako zenbait neurri proposatzeari dagokienez ere. Nolanahi ere, geroko puntuetan arreta berezia eta banakatua behar duten alderdiak eta/edo kontuak jorratuko dira, Planean ezarritakoak osatzen dituzten neurri gehigarriak ezarrituz.

Lurralde historikoko eskualde bakoitzerako ebaluatu dira planean aurreikusitako jarduerak, eta mapa batean jarduera horiek naturgune babestuekin eta bereziki Natura 2000 Sarearen gainean gainjarri dira. Ebaluazioaren azken emaitzak "Bateragarri", "Neurritsu" eta "Larri" kategorian sailkatzen du inpaktu maila jarduera bakoitzarentzat. Ingurumenean globalki inpaktu maila handiena duten jarduerak "Neurritsu" mailara iristen dira, baina hala ere proiektu bakoitza xehetasunez ebaluatu beharko da dagokien Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio arrunt edo erraztuaren esparruan.

Ingurumen Azterketa Estrategikoan eta plana eguneratu, aldatu edo berrikusteko agirian kontuan hartu dira Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak emandako 2015eko uztailaren 30eko Irismen Agirian aipatzen ziren oharrak. Agiri horretan ezarritako irizpide eta printzipio zehatzak, nolana ere, eraikuntza proiektuetara eramango dira, Inpaktuaren Ebaluazio arrunt edo erraztuko prozeduren esparruan banan-banan behar bezala ebaluatu eta gero.

IAEn sartu diren ingurumen helburu eta irizpideak egokitzen jo dira errepide plan berriko jarduerak garatzean aintzat hartzeko.

Azpiarratu behar da planak ingurumena hobetzeko berariazko hiru programa jasotzen dituela aplikatzeko: "Errepideetako habitaten zatikatzea murrizteko programa", "Ingurumena leheneratu eta errepideak paisaian integratzeko programa" eta "Trafikoaren zarata eragozpenak murrizteko programa".

Errepideetako habitaten zatikatzea murrizteko programa.

Programa honen helburua errepidea ingurumenean egoteari egotz dakioken habitaten zatikatzea ebaluatu eta diagnostikatzea da, hesi efektua eta istripu arriskua eta animalien harrapatzeak murrizteko esku hartze neurri egokienak proposatuz.

Programa honen xede diren aldeak IAEk interes bereziz identifikatu dituenak dira, animaliekiko istripu tasarik handiak dauzkaten eta naturgune babestuekin eta ingurumen kalitate eta kalteberatasuneko beste eremu batzuekin bat datozen eremuak edukitzeagatik. AEPlan berariaz hautatzen dira proiektu hauek horretarako:

– A-623 errepidearen zatiak Urrunagako urtegiaren ekialdeko ertzean.

– A-625 errepidearen zatiak Saratxoko saihebidetan Nerbioiren gaineko zubibidearen inguruan.

– Fontechako saihebideta, A-2622 eta A-627-2.

Ingurumena leheneratu eta errepideak paisaian integratzeko programa.

Programaren helburua errepide zatiak dauden ingurumen eta paisaia baldintzak eta proiektuek haietan zer eragin duten ebaluatu eta diagnostikatzea da.

Xede diren aldeak, IAEak lehentasunez identifikatzen dituenak, proiektuetan paisaia bikain eta paisaia berezi katalogatutako eremuei eta ingurumen eta paisaia sentiberatasuneko beste eremu batzuei eragin diezaieketenak dira. Proiektu hauek hautatu dira berariaz ondore horietarako:

– A-124 errepidea Araban duen ibilbide osoan.

– A-623 errepidea Urrunagako urtegiaren ekialdeko ertzean.

Trafikoaren zarata eragozpenak murrizteko programa.

Programaren helburua pertsonen ingurumen bizi kalitatearen gaineko eragina, ondorio horietarako bereziki sentiberak diren errepide jakin batzuetan ibilgailuen trafikoari egotz dakiokiena, ebaluatu eta diagnostikatzea da.

Xede diren aldeak, IAEak lehentasunez identifikatzen dituenak, trafiko fluxu handiak dauzkaten errepide zatietako ertzetan biztanle gehien duten eremuak dagozkie. Proiektu hauek hautatu dira berariaz ondore horietarako:

- N-102 Ariñizen.
- N-622 Arangizen.
- N-622 Sarrian eta Ametzagan.

Ingurumenean integrazeko neurriak.

IAEaren 11.4 puntuan proiektuetarako jasotzen diren ingurumen prebentzioko neurriak eta jarraibideak egokitzat jotzen dira eta planak kontuan hartu behar ditu. Neurriak tipologiatan banatu dira, eremu, espazio edo babestu beharreko ingurumen elementuaren arabera:

- Lurzorua babesteko neurriak, geomorfologia eta geologia.
- Atmosfera eta klima aldaketa babesteko neurriak.
- Zaratatik babesteko neurriak.
- Hondakinak sortzearen eta kutsadura handitzearen aurreko neurriak.
- Hidrologia babesteko neurriak.
- Landare autoktonoak eta interesekoak babesteko neurriak.
- Babesgune babestuak eta balio naturaleko beste eremu batzuk babesteko neurriak.
- Konektibitate ekologikoa babesteko neurriak.
- Fauna babesteko neurriak.
- Paisaia babesteko neurriak.
- Kultura ondarea babesteko neurriak.
- Ekologia eta nekazaritza produktibitatea babesteko neurriak.
- Ibilbide berdeak babesteko neurriak.

3.2. Norbanakoek eta erakundeek egindako ingurumen alegazioak: Alegazio horiek kontuan hartzea Ingurumen Ebaluazio Estrategikoko prozeduraren ondoretarako.

Ingurumen Ebaluazio Estrategikoko prozeduraren kontsulta fasean, 21/2013 Legearen 19. artikulua arabera, plan berriaren eta Hasierako Ingurumen Agiri Estrategikoaren zirriborroaren kopia igorri zitzaion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdun hauei (erantzuna bidali zuten erakundeak adierazi dira):

URA Uraren Euskal Agentzia.	√
Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.	√
Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.	√
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza.	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba.	
GADEN Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea.	
Eguzki talde ekologista.	
Hontza.	
Gaia Elkartea.	
Mendizale Federazioa. Ingurumen Atala.	
UAGA.	
IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.	√

Arabako Kontzejuen Elkarte	
SEO Birdlife	
Gasteizko Udala	
Añanako Kuadrilla	
Aiarako Kuadrilla (Oharra. Aiarako Udalak txostena igorri du, Aiara Batuz udal taldeak sinatua)	√
Kanpezu - Arabako Mendialdeko Kuadrilla	
Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla	
Arabako Lautadako Kuadrilla	
Zuiako Kuadrilla (Oharra. Txostena igorri du Legutioko Udalak)	√
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua.	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ur Zerbitzua.	
Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua.	
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza.	√

Erantzun horiek organo sustatzaileari bidali zitzaizkion eta ohar edo alegazio horien laburpena Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2015eko uztailaren 30ean emandako Irismen Agirian laburtu zen (kopia osoa dago zerbitzu horren 14/235 espedientean eta www.araba.eus webgunean: gaia ingurumena-ingurumen ebaluazioa).

Geroago, 2018ko ekainaren 26an, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritzak "Arabako 2004-2015 Errepide Plan Integralaren 2016-2027 aldirako eguneraketa, aldaketa edo berrikuspenaren aurreproiektua" onartu eta jendaurreko informazioko izapidean jarri zuen berrogeita bost egun baliodunetan. Jendaurreko informazioa interesdun izan zitezkeen erakunde, entitate, korporazio eta partikular guztiei zuzendu zitzairen, eta kontsulta bat egin zitzairen berriaz 2015ean ingurumen prozeduraren esparruan kontsultatuak izan ziren administrazio publikoei eta pertsona interesdunei.

Hemen, ingurumen izaerako alderdiak edo oharak izanda, jendaurreko informazio fasean jaso diren 11 alegazioak zerrendatu eta labur-labur deskribatu dira. Paraleloki Ingurumen Ebaluazio Estrategikorako aintzat hartu behar direla uste den alderdiak adierazten dira.

Oharra. Sustatzaileak jaso dituen 44 alegazioetatik, planari buruz egin diren batzuk zorrozki ingurune izaerakoak ez zirela uste izan da eta, beraz, ez dira atal honetan laburbildu:

Bere alegazioan, Gabriel Uriarte Salazar N-124 errepidea Armiñon eta Briñas artean bitan banatzeko proiektuaren aurka ageri da, haren ustez AP-68k N-124rako proiektatzen den eginkizuna betetzen duelako eta, alegaziogilearen ustez, ez delako beharrezkoa, beraz, errepide hori bikoiztea. Ingurumenari dagokionez, zalantzan jartzen du Ingurumen Azterketa Estrategikoak egindako lana eta azpimarratzen du kontuan hartu behar direla ur, fauna eta baso ekosisteman eta ekosistema sinergikoan dituen ondorioak, alde horretako beste jarduera askori gehituko zaiela ere kontuan hartuz.

Alegazioa, beraz, duela zenbait urte Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio banakatu edo arrunta egin zitzaion proiektu jakin bati buruzkoa da, eta prozedura hura aldekoa izan zen, ingurumen baldintzekin: Ingurumen Saileko foru diputatuaren martxoaren 31ko 78/2009 Foru Agindua, "N-124 errepidea, Armiñón eta Briñas arteko lotunean, bikoizteko eta autobia bihurtzeko trazaduraren proiektuaren" ingurumen eraginaren adierazpena onartzen duena. Egundako proiektu horren zati bat egiten ari da, Armiñon eta Zambrana artean, eta paraleloki ingurumen jarraipena egiten ari da, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren eta Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritzaren artean koordinatuta.

Gamarra Nagusiko administrazio batzordeak alegazio bat egin du, herri horretako zarata arazoari buruz, eta horri dagokionez, Gamarra Nagusitik igarotzen den N-240aren zatia zeharbide gisa tratatzeko eskatzen du. Halaber, dioenez, Gasteizko Udalarekin koordinatu behar da Busturbi kalea eta Gamarrako zubia eraberritzeko, eta guztia proiektu bakar batean jasotako eraberritze integral gisa landu behar da.

Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak Natura Ingurunearen Zerbitzuak idatzitako txosten bat igorri du. Baloratzen da egindako ingurumen analisia zuzena eta AEPlak daukan xehetasun mailara doitu dela. Ondo baloratzen dira AEPla garatzeko proiektuak diseinatzeako emandako ingurumen oinarria eta haiei dagokien ingurumen ebaluazioa.

Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak interes handikotzat jotzen ditu AEPlan Arabako errepideetan ingurumena hobetzeko aurreikusten diren programak eta, bereziki, natura ondareari dagokienez, "Errepideetako habitaten zatikatzea murrizteko programa" eta "Ingurumena leheneratu eta errepideak paisaian integratzeko programa" azpimarratzen ditu. Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza horrek eskatzen du programa horiek gehiago garatu eta ekingo zaien jarduerak gehiago zehazteko. Zalantzarik gabe, oso kontuan hartu behar da ohar hori proiektuak eta haien Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa definitzeko uanean.

AEPlan proposatutako jardueren xehetasun maila kontuan hartuz, Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak nahikotzat jotzen du IAEn emandako trataera, baina ohartarazten du plana garatzeko proiektuen ingurumen ebaluazioek berriaz sartu behar dutela Natura 2000ko ondorioen ebaluazioa, zuzeneko eta zeharkako eraginak kontuan hartuz.

Gasteizko Udaleko Hirigintza Saileko Zuzendaritza Nagusiak alegazio txosten bat igorri dio foru aldundiari, Hirigintzaren Kudeaketaren Zerbitzuak, Eratzun Berdearen eta Biodibertsitatearen Unitateak, Espazio Publikoaren eta Natur Ingurunearen Zerbitzuak, Landa Eremuaren Zerbitzuak eta Ingurugiro Galetarako Ikastegiak batera egina. Txosten horretan AEPlaren eta haren jarduera guztien justifikazioari buruzko ohar asko egiten dira. Ingurumenari zorrozki lotuta, hemen laburbiltzen diren ohar hauek aipatu behar dira:

– AEPI berriaren helburuen artean mugikortasun jasangarriaren sustapena sartu eta hura proiektu zehatzen bidez garatzea.

– Zalantzan jartzen da aukeren analisia eta 0 aukera edo ez jardutekoa proposatzea gomen datzen da, gutxienez eraikuntza berriko esku hartzeetarako eta indarreko AEPlan aurreikusten ez direnetarako.

– Zalantzan jartzen da metodologia, nahasgarritzat jotzen baita. Zehazki, urriegizat jo da sozioekonomiari eta paisaiari buruzko analisia.

– Ondo baloratzen dira ingurumena hobetzeko programak, baina uste da proiektu guztiek izan behar lituzketela ingurumenean integratzeko behar diren neurriak.

– Ez da justifikatutzat jotzen AEPlan A-132 errepidea eta N-104 errepidea lotzeko jarduera, eta inpaktu oso garrantzitsua dauka nekazaritza lurzoruetan eta Salburuako hezeguneetan.

– Zalantzan jartzen da N-104 errepidea desbideratu eta bikoiztea, eta inpaktu garrantzitsua dauka Salburuaren ingurunean.

– Aurreikuspenak hobeto aztertu eta zehazteko eskatzen da, Altubeko autobia eta Igorreko lotunea sendotzeari dagokionez. Azken horri buruz, Zadorra ibaiaren KBEen eta ibai horren ura egokitu eta ingurumena leheneratzeko planean, haren III. fasean, duen eraginaz ohartarazten da (Abetxukoko zubia-Igorreko zubia).

– Toki eta auzoko sareen mailan aipatzen da diseinuan erabiltzaile guztiak hartu behar direla aintzat, ez bakarrik ibilgailu motordunak, eta ingurumeneko eta paisaiako integrazioa bereziki azpimarratu behar dela. Errepide horietako batzuetan trafiko motordunaren abiadura mugatzearen alde egiten da.

– Hiri zeharbideetan, egokitatzat jotzen da fisikoki hiri bilbean integratzea eta trafikoa motel-tzea, bide lasterrak izatea saihestuz.

– Zalantzan jartzen da Ingurumen Azterketa Estrategikoak ingurumen sentiberatasuneko eremuei, AEPlan aurreikusitako jardueren eragina izan lezaketenei, emandako definizioa.

– Zalantzan jartzen da lehen aipatutako A-132 eta N-204 errepideetako jardueren inpaktuaren balorazioa eta garrantzi handikoa dela uste da, batez ere Salburuako hezegunearen ingurunean.

– Zenbait bide jarduerak Salburuaren ingurunean eta bereziki ur-ipurtatsarengan sortzen dituzten arazoak zehaztu ondoren, aipatzen da egokia dela aurreikusitako N-104 bikoizteko jarduerak “Errekabarri ibaia desubideratzeko proiektua, Ertzainak Arkautin duen akademiaren inguruan” izeneko proiektuan aurreikusitako jarduerak jasotzea. Horri dagokionez, Zerio eta Dulantzi errekan basa faunarentzat egokitutako pasaguneak sartzearen alde ere egiten da.

– Ingurumen azterketa xehatua eskatzen da proiektu hauetan:

– Otazuko saihebidia A-3104 errepidean Santo Tomas ibaiaren gainean.

– A-3104 errepidearen trazadura hobetu eta zabaltzea Santo Tomas ibaiaren gainean.

– Martioda eta Otobarrenerako sarbideak Oka ibaiaren gainean.

– A-3302 errepidearen eta Zaia ibaiaren arteko bidegurutzak.

– A-3602 errepidearen eta Iturritzabaleta ibaiaren arteko bidegurutzak.

– A-3010 errepidearen eta Dulantzi eta Zerio ibaien arteko bidegurutzak.

– Gasteizko Mendietan izan daitezkeen inpaktuei dagokionez, proiektu bi azpimarratzen dira: A-3102 errepidearen plataforma (Zaldiarango mendatea) hobetu eta zabaltzea, eta A-3104 errepidearen plataforma (Okinako mendatea) hobetu eta zabaltzea. Azpimarratzen da, eremu horietan, bikain zaindutako basoen gaineko eragina. A-3104 errepidearen kasuan, Gasteizko Mendi Garaien KBEko Natura 2000 Sarean sartzen dira eta, beraz, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen 42/2007 Legeak horri buruz ezarritako prebentzio araubidea hartu beharko da kontuan. Hirigintzako Zuzendaritza Nagusiaren txostenean gogorarazten denez, Gasteizko Mendiak, euren natura balio handiengatik, naturgune babestu izendatzeko prozeduran daude murgilduta, parke natural izendatuta.

– Eskibelerako A-4101 auzo errepidea hobetzeari dagokionez, azpimarratzen da bide hori sentiberatasun handikoa dela, Gasteizko Eratzun Berdean txertatutako Armentiako parkea zeharkatzen baitu. Ildo berean, haren arabera, Gobeotik Lopidanarako errepidearen ingurunearen sentiberatasuna hartu behar da kontuan.

– Igorreko lotuneari buruz dio Zadorra ibaiaren KBEaren inguruneari eragingo diola eta, beraz, proiektuaren “ebaluazio egokia” egin beharko dela.

– Oinezkoen eta txirrindularien mugikortasunari buruz esaten da ez dela ondo aztertu AEPlan proposatutako jarduerak Arabako Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen LApean duten eragina. Horri dagokionez Gasteizko udalerriko toki edo auzoko errepide askok oraintxe oinezkoen eta txirrindularien aisiarako ibilbide gisa daukaten erabilera babestearen alde egiten da. Ohar-tarazten da oso garrantzitsua dela errepide horietan abiadurak handitzea ahalbidetzen duen jarduerarik ez egitea.

– Eskualde, toki eta auzoko sarean motorrik gabeko ibilgailuak integratzen dituzten diseinu irtenbideen adibideak aipatzen eta erakusten dira argazkietan, Gasteizko Udalerriko landaguneetan aplikatzekoak.

Uste da Gasteizko Udaleko Hirigintzako Zuzendaritza Nagusiaren ohar horietako gehienak, AEPlan sartutako proiektu jakinei buruzko ingurumen hobekuntzei buruzkoak direnean, ingurunearen babesa eta bide mugikortasuna bateragarri egiteko helburu baten arabera direla eta kontuan hartu eta, egokiak badira, proiektuetan sartuko dira Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio prozeduren esparruan. Prozedura horietan zenbait aukera ebaluatuko dira, proiektu bakoitzarentzat zatiz zati ere definituta eta eremu bakoitzaren ingurumen sentiberatasunaren arabera. Adierazpen honen baldintza orokorretan jasotzen denez, halaber AEPla malgutzea

aurreikusi beharko da ingurumen sentiberatasun bereziko guneei dagozkien eremuetan, eta tarteko irtenbideak bilatzeko ahalegina egingo da, errepideetako segurtasuna hobetu eta aldi berean ingurumena babesteko helburuak bete ahal izateko.

Halaber, Adierazpen honen 4. puntuan neurri bat sartu da A-132 errepidean aurreikusitako proiektuek (N-104 errepidearekiko lotunea) eta N-104 errepidearen edukiera handitu eta hura bikoizteko proiektuek iragazkortasun ekologikoan duten eragina xehetasun handiz aztertzeke. Horretarako, Salburuako KBE eta HBBEren aldean hirigintzako eta bideko beste jarduera batzuekin izan daitezkeen ondorio metagarriak eta sinergikoak hartuko dira kontuan, eta bereziki eremu horretan AHTren proiektu bientzat aurreikusitako irtenbidea zehazki ezagutzen denean (Gasteizen trenbidea integratzea eta EuskalY eta Iruña lotzeko aukera).

Halaber, jarduerak ibilbide berdeen sarean daukaten eraginari dagokionez, eta errepide sarea eta ibilbide berdeen sarea bateragarri egitearen garrantzia kontuan hartuz, Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen 1/2012 Foru Arauan ezarritakoa bete beharko da eta Ingurumen Adierazpen Estrategiko honetako ingurumen baldintzetan berariazko neurri bat sartu da horri buruz.

Arabako Foru Aldundiko Historia, Arte eta Arkeologia Ondarearen Zerbitzuak gauza batzuk argitzen ditu Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen eta Hirigintzako Udal Katalogoaren aplikazioaren arabera euren balio arkitektoniko edo historikoagatik kalifikatu edo inbentariatutako eremuak ondo interpretatu eta kontuan hartzeko. Ondorioztatzen da AEPlari lotutako proiektuak izapidetzeko eta, beraz, haien ingurumen inpaktua ebaluatzeko unean egingo dela txosten egokia Arabako lurraldeko ondare kultural eta arkitektonikoan izan dezakeen eraginari buruz.

EH Bilduren batzar taldeak zalantzan jarri du AEPlaren planteamendua, "planteamendu hiperdesarrollistak alde batera uztearen" alde egiten du eta kontinuista deritzo planari. Aipatutako kontuen artean, batzuk azpimarratu dira hemen, ingurumenarekin duten lotura zuzenagoagatik:

– Ildo horretan, lurzorua okupatu eta artifizialtzea ekiditearen alde egiten da, okupazioak guztiz ezinbestekoetara murriztuz, eta AEPlak A aukeraren eta B aukeraren artean ezartzen duen kategorizazioa berrikustearen alde ere bai, ingurumenari garrantzi handiagoa emateko.

– A-1 eta N-622 errepideen arteko lhurreko lotunerako irtenbidearen definizioan, zeinak Etxabarri-Ibiñan AP-1 errepidearekiko lotunea bideratzen baitu, batzat taldeak lurzoruen okupazioa minimizatu eta jardueraren ondorioz garapen urbanizatzailea eta ingurunea artifizialtzea ekiditearen alde egiten du.

– N-124 errepidea Gatzaga Buradonen eta Haroren artean bikoiztearen aurka dago.

Iritzi horri buruz, esan behar da proiektu horren Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa egin zela, arestian azaldu denez, eta haren emaitza aldeko Ingurumen Inpaktuaren Adierazpena izan zela, ingurumen baldintzekin: Ingurumen Saileko foru diputatuaren martxoaren 31ko 78/2009 Foru Agindua, "N-124 errepidea, Armiñón eta Briñas arteko lotunean, bikoizteko eta autobia bihurtzeko trazaduraren proiektuaren" ingurumen eraginaren adierazpena onartzen duena. Egun proiektu horren zati bat egiten ari da, Armiñón eta Zambrana artean, eta paraleloki ingurumen jarraipena egiten ari da, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren eta Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritzaren artean koordinatuta.

– Azkenik, batzar taldeak bere ustez lehentasunez heldu behar litzaiekeen lurralde historiko osoko proiektuen zerrenda bat sartu du.

Izan ere, eta EH Bilduren batzar taldeak ingurumenari zorrozki lotuta alegatzen dituen gaiak kontuan hartuz, lurzoruen okupazioa eta artifizialtzea minimizatzea proiektuen Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio prozeduretan baloratu beharreko funtsezko alderditzat hartu beharko da, bai haietako bakoitzaren aukerak aztertzean, bai hautatutako aukerak zehaztu edo zehazki definitzean.

Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak, bere alegazioen txostenean, adierazi du AEPlan jasotako proiektuek kontuan hartu behar luketela EAeko nekazaritza eta basogintzako

LAPean ezarritakoa eta, nekazaritzako lurzorua babestu beharrari dagokionez, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako 17/2008 Legeak horri buruz ezartzen dituen oharrak. Ondo baloratzen dira Ingurumen Agiri Estrategikoaren 11.4.12 puntuan obrek eragindako lurzorua babestu eta leheneratzeko jasotako neurriak eta gogorarazten da kontuan hartu behar dela landabideen babesa, Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erabilera, kontserbazio eta zainketarako 6/1995 Foru Arauan ezarritakoan oinarrituta eta kontuan hartu behar dela eraginak gerta litezkeenean ureztatzeko azpiegiturak berriz jartzea.

Nekazaritza Zuzendaritzak AEPlaren berrikuspenaren aldeko txostena egin du, nekazaritza arloaren gaineko eraginaren ondoretarako, eta berariaz ondorioztatzen du nekazaritzarako balio estrategiko handiko lurzorua diagnostikoaren analisiaren eta inpaktuaren balorazioaren barruan sartu direla. Gainera, alegazioan esaten denez, proiektuen Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioan kontuan hartuko dira lurzoru horiek trazaduren inpaktua baloratzeko, eta lehena-goko kontsulten izapidean berariaz kontsultatu beharko zaio zuzendaritza horri kasuan kasu beharrezkoa den txostena emateko.

Ingurumen organo honek ondo baloratu ditu Nekazaritza Zuzendaritzak azaldutako oharrak eta, beraz, kontuan hartu beharko dira proiektu bakoitzaren Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio prozeduraren esparruan. Horri dagokionez, nekazaritza arloaren gaineko eraginaren ebaluazio bat egin beharko da "balio estrategiko handiko" lurzoru gisa kalifikatutakoei eragiten dien proiektu bakoitzarentzat, hori dena EAEko nekazaritza eta basogintzako LAPak ezarritakoaren arabera.

Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuak, ingurumen garrantzi handieneko alderdi gisa, gogoratzen du Natura 2000 Sareko naturgune babestuetatik igarotzen diren errepideetako jardueren ingurumen ebaluazio egokia egin beharko dela eta, beharrezkoa bada, dagozkien konpentsatzeko neurriak aplikatu beharko direla. Hori dena, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen 42/2007 Legearen 45. artikuluan xedatutakoa aplikatuz. Izan ere, errepide proiektuei egin behar zaizkien Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio arrunt nahiz erraztuko prozeduren esparruan, zorrozki egingo da 42/2007 Legean jasotako "ebaluazio egokia" eta ondorio horietarako Natura 2000 Sarea eremua kudeatzen duen organoari kontsultatu beharko zaio, proiektu bakoitza Natura Sarea eremua zaintzeko helburuekin bateragarri den ebatzi eta, beharrezkoa bada, babesteko, zuzentzeko eta/edo konpentsatzeko neurriak ezar ditzan.

Galtzada handitu eta bikoizteko jardueri dagokienez, Natura Ondarearen Zerbitzuaren txostenean esaten da aukera dagoela sare hidrografikoaren gaineko galtzadapeko pasaguneak handitzeko eta kasu bakoitza zehazki aztertu behar dela, hildako animalien kopurua minimizatzeke prebenitu edo zuzentzeko neurri egokiak aztertuz. Horretarako, esan behar da egokiak direla ohar horiek eta kontuan hartuko direla nolahi ere proiektu mailako Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioetan.

N-124 errepidean proposatutako galtzada bikoizteko jardueri dagokienez, dioenez, esku hartzearen luzera handia dela eta, habitaten hesi eta zatiketa efektua orotara ebaluatu behar da bere eragin metagarri eta sinergikoagatik. Natura Ondarearen Zerbitzuaren ustez, ezinbestekoa da fauna fluxuak aztertu eta iragazkortasuna bermatu, istripuak murriztu eta harrapatzeen kopurua urritzeko behar diren faunaren pasaguneak ezartzea. Horri dagokionez, ingurumen organo honek esan behar du alderdi horiek kontuan hartu zirela Ingurumen Saileko foru diputatuaren martxoaren 31ko 78/2009 Foru Aginduan, "N-124 errepidea, Armiñón eta Briñas arteko lotunean, bikoizteko eta autobia bihurtzeko trazaduraren proiektuaren" ingurumen eraginaren adierazpena onartzen duenean, eta egun haren ingurumen jarraipena egiten ari da, bikoizketa horren zati bat (Armiñón eta Zambrana artean) egitearekin batera.

Azkenik, Natura Ondarearen Zerbitzua kezkatuta dago AEPlan Salburuako hezeguneen eremuan, N-104 errepidean (edukiera handitzea), A-132 errepidean (N-104 errepidearekiko lotunea Arkautin) eta Burgeluko saihesbidean (proiektu horrek badauka Ingurumen Inpaktuaren Adierazpena, 347/2014 Foru Aginduaren bidez alde emanda, baldintzekin) proposatzen diren jarduerengatik. Zalantzan jartzen da jarduera horiek "Errepideetako habitaten zatiketa murrizteko

programa”ren barruan sartu ez izana, lurralde historikoko beste eremu batzuetako jarduerak sartu diren bitartean. Salburuako Natura Sarea esparruaren eta hura KBE eta HBBE izendatzen duen araudiak berak, alegazioan laburbiltzen denez, Salburuako konektibitate ekologikoko arazo larria azpimarratzen du, hain zuzen ere. Azkenik, zalantzan jartzen da A-132 eta N-104 errepideen arteko lotuneko jarduera egokia den, ingurumenean izan dezakeen inpaktu larriagatik, eta defendatzen da, N-104 errepidearen edukiera handitzeko proiektuarekin batera, kontuan hartu behar litekeela “Errekabarri ibaia desubideratzeko proiektua, Ertzainak Arkautin duen akademiaren inguruan” izeneko proiektua egiteko eskakizuna (Europako “LIFE Lutreola Spain” proiektuan jasotako jarduera).

Alegazio horiei dagokienez, arrazoizkotzat jo behar da Salburuako hezeguneak zatiketa ekologikoaren ikuspuntutik eremu bereziki sentibera gisa baloratzea. Hala ere, zaila da zehaztea AEPlak hezegune horien eremuan proiektatzen dituen jarduera guztien eragin globala, eta uste da egun ez daukala definizio zehatzik eta, halaber, beste azpiegitura batzuk daudela definitu gabe, hala nola alde horretako Abiadura Handiko Trenaren behin betiko trazadurak. Jarduera horiek denak zehatzago ezagututa, dagozkien inpaktua ebaluatzeko proiektuen esparruan, xehetasunez aztertu ahalko da eragin globala eta berariazko irtenbideak proiektatu habitatakat zatitzeko eta ingurumenaren gaineko bestelako inpaktuak eta eraginak minimizatzeko. Horri dagokionez, eta eremu horren sentiberatasun berezia onartuz, adierazpen honen baldintzetan Salburuako eremuan iragazkortasun ekologikoaren arazoa berariaz aztertzeke eskatzen da, AEPlak alde horretan aurreikusitako proiektu bakoitzaren ingurumen inpaktuaren esparruan egin beharrekoa.

Azpimarratu behar da sustatzaileak, halaber, alegazioei erantzutean, onartu egiten dituela Salburuako eremuaren sentiberatasuna eta kalteberatasuna, eta onartzen duela Dulantzi ibaira isurtzen duten erreken gaineko pasaguneak ondo proiektatu behar direla, aldearen kalteberatasuna eta garrantzi ekologikoa kontuan hartuz. Xehetasunez aztertuko da alderdi hori eraikuntza proiektuak idaztean.

Amurrioko Salvogoro elkarte naturalistak bere txostenean dioenez, 2009an “Arabako Kantauriko eskualdeko haragijale txikien banaketa atlasa” azterlana egin zen Ingurumen Sailarentzat. Azterlan horren arabera, hauek dira gunek kritikoak errepide aldeetan: A-625, Luiaondoko sai-hesbidearen zatian, eta A-624 errepideko bidegurutzek Izoria, Izalde eta Ibaizabal ibaien gainean. Elkarte naturalista horrek faunaren pasaguneak proiektatzeko errepide bietan. Haien ustez, AEPlan La Cadena (Olabezar) eta Landeta (Arespalditza) arteko eta Los Olmos eta Markijana arteko errepide zatirako aurreikusitako jardueretan, inpaktuak ingurumen azterketak kalkulatu baino handiagoak dira.

Ingurumen organo horren ustez, xehetasunez hartu beharko kontuan alegazio hori, zeina eskualderako egindako azterketa xehatuan bermatzen baita, eta eraikuntza proiektuak definitzeko prozesuan xeheago aztertu behar diren jardueri buruzkoa baita, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio prozeduren esparruan.

Planak uren arloan aztertutako alderdiak azaldu ondoren, Uraren Euskal Agentziak sare hidrografikoan eragina izan dezaketzen zenbait konturi heltzen die.

Zuzenketa eta zehaztapen batzuk egiten dira ibilguen gaineko inpaktuak baloratzeko irizpideei buruz, eta horri dagokionez, esaten da lau proiekturen balorazioa urriegia dela azaleko hidrografiaren ikuspuntutik:

– A-3630 eta A-3635 errepideen trazadura hobetu eta plataforma handitzea Herrerías ibaiaren barrena.

– A-3104 errepidean, trazadura hobetu, plataforma handitu eta Otazuko sai-hesbidea egitea, Santo Tomas ibaiaren ibilguaren uholde arriskuari eragiten diona.

– A-3641 errepidearen trazadura hobetu eta plataforma handitzea Zuaza eta Bizkaia artean, Itzalde ibaiari eragiten diona.

– A-132 eta N-104 errepideen artean Askartza eta Arkautiren parean proposatutako errepide berria, San Lorenzo errekarari eragiten diona.

Izan ere, kalkulatu da proiektu horietan sare hidrografikoaren gaineko inpaktuak garrantzitsuak izan daitezkeela, garrantzi neurritsukoak gutxienez, eta horri dagokionez proiektuak definitzean erreka horien gaineko inpaktua minimizatzen duten irtenbideak aztertu beharko dira, eta horri buruz ingurumena babestu, zuzendu eta/edo konpentsatzeko neurriak proposatu, ingurunean pentsatuta egon daitezkeen beste bide edo trenbide eta hirigintza proiektuekin izan ditzakeen ondorio metagarriak eta sinergikoak ere kontuan hartuz. Horri dagokionez, lehenago zenbait ohar egin dira puntu honetan bertan eta gainera babesteko neurriak sartu dira ingurumen baldintzen atalean.

Aipatutako lau proiektuei Ingurumen Azterketa Estrategikoan inpakturik handienekotzat jotzen direnak gehitzen zaizkie:

- Saihesbideak egokitzea A-2522 errepidean (Altube ibaia).
- N-240 errepidea eta A-627 errepidea Zuian (Santa Engracia ibaia eta Urrunagako urtegia) egokitu eta edukiera handitzea.
- A-2622 errepidea egokitzea Artziniegan (Herrerías ibaia).
- A-2622 errepidearen saihesbidea Pobesen (Baia ibaia).
- A-126 errepidea egokitzea Nafarroarekiko mugan (Ega ibaia).

Bestalde, eta uholde arriskuari zorrozkiz dagokionez, URAREN txostenean arriskuen ebaluazioan Fluxu Lehenetsiko Eremuaz gain (FLE), 100 eta 500 urteko uraldietan uholdeak izan ditzaketen eremuak ere kontuan hartzearen alde egiten da.

Halaber, UDAk aplikatu beharreko araudi sektoriala aipatzen dio sustatzaileari, araudi horien artikulua zehaztuz. Gainera, gogoratzen da jarduerak bateragarri egin behar direla uholde arriskua kudeatzeko planekin. Azkenik, eta kartografiari dagokionez, URAk aipatzen du kome-nigarria dela plan hidrologikoetako eremu babestuen erregistroan sartutako eremuak kontuan hartzea. Haien artean daude, besteak beste, biztanleria hornitzeko harpenak eta haien babesteko eremuak, ibai erreserba naturalak eta natura edo ingurumen intereseko zatiak.

IHOBE sozietate publikoak jakinarazi du egiaztatu dela AEPIak ondo hartu duela kontuan historikoki kutsatzaileak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzatiak daudela. Ingurumen garrantzi handieneko alderdi gisa, esaten da inbetariatutako kokagune baten gaineko edozein esku hartze egin aurretik lurzoruaren kalitatea ikertuko dela, lurzoruaren kutsadurari lotutako arriskurik ez dagoela bermatzeko. IHOBEn oharra, beraz, kontuan hartuko dira proiektuak definitu eta haien ingurumen ebaluazioa egiteko unean.

4. Ingurumen baldintzak

IAEaren 11.4 puntuan ingurumenean integratzeko jaso diren neurriak "Arabako 2016-2027 Errepide Plan Integralaren (AEPI) eguneraketa, aldaketa edo berrikuspena" behin betiko onartzeko agirian sartu beharko dira. Osagarri eta/edo gehigarri gisa, ingurumenean integratzeko neurri hauek behin betiko onartutako planaren agirian sartu beharko dira:

A) Eskualdeko sarean, tokiko sarean eta auzoko sarean proiektatzen diren jardueretan, euren ekologia eta paisaia meritu handiengatik katalogatutako eremuei eragiten zaienean (Natura 2000 naturgune babestuak, korridore ekologikoak, mehatxatutako eta "galzoriko" espezieentzako babes bereziko eremuak eta paisaia berezi eta/edo bikain gisa katalogatutako paisaiak), eta berezitasun handiko eremu zehaztuta, AEPIak ezarritako proiektuen esku hartu eta diseinatze irizpide estandarrak malgutzera aztertuko da. Beraz, horri dagokionez, berariazko bestelako irtenbideak hartu ahalko dira, derrigorrez trazadura hobetu eta seguru egiteko eta ingurumen balioak babesteko funtsezko alderdiak uztartu beharko dituztenak; hori dena kasu bakoitzean errepideak hobetzeko proiektu guztiek behar dituzten Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio prozeduretatik etor daitezkeen emaitzen eta ondorioen arabera, eta, era berean, onartutako araudietatik eta ingurumen estrategia berrietatik datozen gidalerroen arabera.

B) Gasteizko ekialdea, eta Salburuako hezeguneen ingurunea bereziki, bide azpiegitura proiektu berriak, egun zehazteke dauden trazadurak dauzkatena, errepideei zein trenbideei dagozkienak, gehien pilatzen dituen lurralde historikoko eremua da trenbidea Gasteizen integratzea eta Iruña-Gasteiz eta Iruñetik Gasteizerako goi-tentsioko linea). Beraz, AEPlak alde horretan aurreikusitako proiektu bakoitzaren ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren esparruan, jarduera bakoitzak iragazkortasun ekologikoan daukan arazoaren eta ondorioen berariazko analisia egingo da. Azterketa horietan xehetasunez eta definizio maila zehatzarekin definitu beharko dira proiektuak, eta xehetasun oso handiz ebaluatu beharko da errepide proiektu bakoitzaren eragin metagarri edo sinergikoa, alde horretan beste jarduera batzuk proiektatu direla kontuan hartuz (aurreikusitako trenbide edo hirigintza proiektuak edo inguruneko garapena). Proiektu mailan neurri zehatzagoak proposatuko dira aplikatzeko eta inpaktuak zuzentzeko eta neurri horiek proiektu bakoitzaren zuzeneko eragin eremu zehatzetik harago aplikatu ahalko dira.

C) Azaleko hidrologiaren eta hari lotutako intereseko fauna eta landaretzaren gaineko inpaktuak minimizatzearen ikuspuntutik, proiektuak definitzean eta bereziki ingurumen inpaktuaren ebaluazio prozeduren esparruan, sakonki aztertuko dira sare hidrografikoarekin gurutzatzeko berariazko irtenbideak, garrantzi handiko inpaktuak saihesten edo zuzentzen dituztenak AEPlan aurreikusten diren jardueretan sartzeko. Ildo horretan, zehazki, proiektu hauek aztertu beharko dira xehetasunez horri dagokionez, duten eragin bereziagatik:

– A-3630 eta A-3635 errepideen trazadura hobetu eta plataforma handitzea, Herrerías ibaiari eragiten diona.

– A-3104 errepidean, trazadura hobetu, plataforma handitu eta Otazuko saihezbidea egitea, Santo Tomas ibaiaren ibilguaren uholde arriskuari eragiten diona.

– A-3641 errepidearen trazadura hobetu eta plataforma handitzea Zuaza eta Bizkaia artean, Itzalde ibaiari eragiten diona.

– A-132 eta N-104 errepideen artean Askartza eta Arkautiren parean proposatutako errepide berria, San Lorenzo errekarari eragiten diona.

– Saihezbideak egokitzea A-2522 errepidean (Altube ibaia).

– N-240 errepidea eta A-627 errepidean Zuian (Santa Engracia ibaia eta Urrunagako urtegia) egokitu eta edukiera handitzea.

– A-2602 errepidea egokitzea Artziniegan (Herrerías ibaia).

– A-2622 errepidearen saihezbidea Pobesen (Baia ibaia).

– A-126 errepidea egokitzea Nafarroarekiko mugan (Ega ibaia).

D) Plana osatzen duen proiektu bakoitzarentzat eragindako eremuetan dauden fauna espezieen gaineko eraginak minimizatzeako aurreikusitako jarduera datak eta kronograma zehaztu eta erabakiko dira. Edonola ere, katalogatutako fauna espezieen interes bereziko eremuetan aurreikusitako jarduerak onartutako kudeaketa planak dituzten mehatxatutako fauna espezie-tarako aldi kritikotik kanpo egingo dira.

E) Parke natural edo Natura 2000 Sarea ekimenaren barruko eremuetan planak planteatutako jarduketa edo proiektuetan ingurumen ebaluazioa egin beharko da, espazio horiek zaintzeko helburuekin bateragarria dela egiaztatze aldera. Hartara, babestutako espazio naturaleko erakunde kudeatzailearen baimena eskatu beharko da.

F) Lanak egiteko makineria astuna erabiltzea debekatuta edota beharrezko gutxienera murriztuta egongo da ibilguetan zein ibai edota erreken jabari publiko hidraulikoko bost metroko zortasunetan.

G) Plana egiteko proiektuetan ez da ezarriko ingurumen kalitateko eremuetan produktu kutsagarrien biltegi, makineria parke eta zerbitzu gunerik, ezta ibai edota erreka ertzetan ere, azaleko, lur azpiko urak zein akuiferoak kutsatzea saiheste aldera. Eremu horien kokapena Arabako Foru Aldundiko ingurumen organoarekin adostuta zehaztuko da, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio prozeduren esparruan.

H) Plana garatzeko proiektuetan ibai edota erreka ertzetako zuhaitz edo zuhaixka landaredian, 92/43/EEE Zuzentarauak katalogatutako landaredia habitatetan eta, oro har, ingurumen kalitate eta sentsibilitate eremuetan sortutako eragina minimizatukoda.

I) Planetik sorrarazitako proiektuek zuhaitz edo zuhaixka landaredia naturala ordezte aurreikusiko dute, kaltea eragitea ekidin ezin den eremuetan, baita lursailen paisaia integrazioa ere. Horretarako, obrak egiteko proiektuek beharrezko obra unitate eta neurriak aurreikusiko dituzte. Errepide azpiegituren inguruan jarritako landare estalkia zaindu eta mantentzeko programa bat hartu beharko da, hura errotzea eta betiko ezartzea bermatzeko.

J) Plana garatzearen ondoriozko jarduketek kutsatuta egon daitezkeen lursailetan eragina sorraraz badezakete, 4/2015 Legearen 25. artikuluko 5. zenbakiaren arabera, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa, erakunde ziurtatu batek egindako hondeatze plan bat aurkeztu beharko dute ingurumen erakundearen aurrean; horrez gain, erakunde horrek alde aurretik onartu beharko du, eta hondeatutako materialetarako zein tratamendu aurreikusten den adierazi beharko da, kasuan kasuko ezaugarriak tarteko.

K) Mailegu zonak edo hondakindegia erabiltzeko, ingurumen organoaren aurretiazko baimena jaso beharko da, hartara kokalekuen egokitasuna ebaluatzen eta ingurumenaren gaineko inpaktuak arindu eta zuzenduko dituzten lehengoratzeko neurriak ezartzeko. Hori dena indarreko arau esparruaren arabera aldi berean eskatu behar liratekeen bestelako baimenak ere betetzeko.

L) Planean aurreikusitako jarduketaren batek Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoan jasotako eremuren batean kalte eginez gero, gauzatu beharreko proiektuan paisaia eraginaren analisi eta berariazko balorazioa egingo da, eta paisaia babestu edota zuzentzeko neurri zehatzak hartu ahalko dira.

M) Jarduketaren batek eragina baldin badauka Arabako Lurralde Historikoko Korridore Ekologikoen Sarean jasotako eremuren batean, orduan gauzatu beharreko proiektuan konektibitate ekologikoen gaineko eraginaren analisi eta balorazioa egingo da, eta ondorio horiek gutxitzeko edota saihesteko ingurumena babestu edota zuzentzeko neurri zehatzak hartu ahalko dira.

N) Jarduketaren batek Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen Sarean jasotako eremuren batean eragina baldin badauka, orduan erakunde kudeatzaileari txostena eskatu beharko zaio; erakunde horrek finkatuko ditu ibilbideak ordezteko beharrezko baldintzak, betiere Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide berdeen urtarrilaren 4ko 1/2012 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.

O) Planak aurreikusitako proiektuen ingurumen eragineko neurri babesgarri eta zuzentzaileek aurrekontu esleipen egokia izan beharko dute, eta kasuan kasuko proiektu teknikoak eta proiektu horien baldintzen pleguak izan beharko dituzte.

5. Ingurumen jarraipeneko programa

Arabako 2016-2027 Errepide Plan Integralaren (AEPI) eguneraketa, aldaketa edo berrikuspenak planaren ondorioak ikuskatzeko programa bat aurreikusten du (Planaren IAEaren 12. puntua). Programa horrek kontrol eta zaintza sistema hauek ezartzen ditu planaren aurreikuspenak betetzen direla eta, haien barruan, proposatutako jardueretarako ingurumen baldintzak mantentzen direla egiaztatzen. Plana onartzen den hasierako unetik egin beharko da, eta egiten diren jardueren egiaztapenari dagokionez, planaren indarraldi osoan garatuko da.

Programa horretan jarraipeneko adierazleak eta helburuak ezarri eta helburuak betetzeko hartu behar diren babesteko, zuzentzeko eta konpentsatzeko neurriak adierazten dira. Adierazle eta neurri horiek alderdi hauetarako ezartzen dira:

- Fauna espezie mehatxatu edo sentiberei zuzenean eragitea.
- Flora mehatxatuarentzat garrantzitsuak diren eremuei eragitea.
- Zaintzeko interesa duten lehentasuneko habitatei zuzenean eragitea.

- Onura publikoko mendiei eragitea.
- Espezieen gaineko eraginaren kuantifikazioa: harrapatze, talka eta abarren kopuruaren bilakaera azpiegitura kilometro bakoitzeko, fauna taldea bereiziz.
- Faunarentzako puntu eta zati beltzen kopurua.
- Faunaren pasagune kopurua, mota bereiziz, azpiegitura kilometro bakoitzeko.
- Balio estrategiko handiko nekazaritza eta basogintzako lurzoruen okupazioa.
- Ingurunea egokitu eta birgaitzeko jarduerak.
- Higadura arrisku handiko eremuei eragitea.
- Interes ekologiko handiko eremuei eragitea.
- Interes geologiko handiko eremuei eragitea.
- Sare hidrografikoari eragitea.
- Errepideko garraioaren eragina klima aldaketan.
- Eragina airearen kalitatean, Nox, COVNM, PM10, SO2, CH4, CO, N20, NH3.
- Argiztapenaren eragina azpiegituretan.
- Zarataren eragina.

Ingurumen Jarraipeneko Programak alderdi hauek ere hartuko ditu kontuan:

- Eragindako eremuak leheneratu eta mantentzea.
- Ondorioak sare hidrografikoan eta balio naturala daukaten eremu mugakideetan.
- Paisaia eta konektibitate ekologikoaren gaineko ondorioak leheneratzea.
- Arazoak dakartzaten espezie inbaditzaileen jarraipena eta ezabatzea.
- Materialak eta hondakinak kudeatzea.

Halaber, beharrezkoa balitz, mekanismoak pentsatuko dira neurri eta kontrol parametro berriak sartu ahal izateko, planak bere iraunaldian aurrera egin ahala.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "AEPlaren (2016-2027) eguneraketa, aldaketa edo berrikuspen" agiriaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa egitea.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, Ingurumen ebaluazioarenak, 41. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorrira, ingurumen adierazpen estrategiko hau ingurumen irizpen erabakigarria izango da, betearazteko neurriei eta baldintzei dagokienez. Lege horren 26. artikuluen arabera, sustatzaileak planaren dokumentuan sartu beharko du adierazpenaren edukia.

Hirugarrena. Agindua ematea ingurumen adierazpen estrategiko hau ALHAOn argitaratzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 21a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria
AMAIA BARREDO MARTÍN